

LEHEN GAUEKO BORTXAKETA ARAUTUA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazuastabarrena

Muskiz (Bizkaia). Lope Garcia de Salazar (1399-1476) setiatu zuen Muñatones dorretxean haren seme Joane. Giltzapetuta emango zituen bizitzaren azken urteak, Muskizen lehenik eta Portugalteko Salazar dorrean gero, oinaztarra izan arren ganboatarren alde egin zuelako.

Azken urte horietan *Istoria de las bienandanzas e fortunas* lan mardula idatzi zuen, 35 liburukiz osatua. Mundua sortu zenetik XV. mende erdialdera arteko historia jaso zuen jaun banderizoak eta horri esker Bizkaiko lehen historialaritzat jotzen da.

Bandoen arteko gatazkak ulertzeko balio handiko iturri horretan, besteak beste, *Jus Primae Noctis* edo lehen gaueko eskubidearen alde idatzi zuen Salazarrek. Horren arabera, jaun feudalek ezkontzear zen haien mendeko edozein dontzeilarekin harreman sexualak izateko eskubidea zuten, ustez.

Eskubidea hizpide duten dokumentu legal gutxi gorde direnez, zenbait historialarik zalantzan jartzen dute jaunek eztei-gauean basailuak literalki bortxatzeko eskubidea ote zuten. Historiografia tradizionalaren arabera, eztei-gaueko sexu erasoak legezkoak ziren jaunentzat, baina hainbatek dio *Jus Primae Noctis* erritu sinbolikoa besterik ez zela.

Inork ez du zalantzan jartzen, ordea, eztei-gauean nahiz beste edozein une-



XV. mendeko jaun feudal bat 'Jus Primae Noctis' ustezko eskubidea baliatzeaz erakusten du irudi honek.

tan, legeak zehatz-mehatz jaso ala ez, behe estamentuetako emakumeak bortxatzea ohitura oso zabaldua zela Erdi Aroan.

Eta horren adibide da, hain zuzen, beste Lope Garcia de Salazar bat, izen bereko historialaren birraitona, Bizkaiko Mailegari Nagusia, 1344an Algecirako konkistan hila. Badakigu bitan ezkondu zela eta emazteekin gutxienez lau seme izan zituela. Baina, ezkontzaz kanpo, goiz hasi zen jaun izateak ze-

karzkion pribilegioak –legezkoak ala ohiturazkoak– erabiltzen eta sasiko ondorengoak izaten. Lehenengoa 15 urte zituela izan omen zuen, Nogaroko (Araba) neska batekin. Guztira, 120 sasiko seme-alaba izan zituen

Haren birbiloba, munduaren historia jaso zuen hura, ez zen birraitonaren kopuruetara iritsi, baina 1476an Portugalteko dorrean pozoituta hil zutenean, Mencia de Avellaneda sasiko alaba alboan zeukan. ■



PHEASTON

Dinosaurioek ez zuten orro egiten

Texaseko Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde batek gaur egungo hegaztien bokalizazioa aztertu du, haien arbaso dinosaurioek egiten zituzten soinuak ondorioztatu nahian. "Emaitzek erakusten dute ahoa itxita bokalizatzeak gutxienez hamasei arkeosurotaraino eboluzionatu duela (taldeak hegaztiak, dinosaurioak eta krokodiloak hartzen ditu barne). Egun tamaina handiko espezieek,

zizneen tamainakoak gutxienez, horrela bokalizatzen dute", dio Chad Eliason ikerlariak. Hala, ostruken estaldiko urrumen antzeko soinuak egiten zituztela ondorioztatu dute. Dagoeneko badakigu dinosaurio gehienek kolore biziko lumak zituztela. Eta orain orroen ordez urruma egiten zutela diote. Filmetako dinosaurio espezie beldurgarriak desagertzeko bidean daude. ■